

PUBLIPOSTA
PUBLICORREO

DESGAITUEI EGUNEROKO
BIZITZAKO
ESPARRUETAN LAGUNTZEKO
BALIABIDE EKONOMIKOEI
BURUZKO GIDA

IV. LIBURUKIA:
NORBANAKOAREN
AUTONOMIA ETA
MENDE TASUN-EGOERAN
DAUDEN PERTSONEN
ARRETA SUSTATZEKO DIRU-
LAGUNTZAK (2. ZATIA)



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

eginaren
eginez

Liburuki honetan, norbanakoaren autonomia eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta sustatzeko beste diru-laguntza batzuk azaldu dira.

Eusko Jaurlaritzaren 13/2008 Legean, Familiei laguntzekoan, jasotako prestazio ekonomikoak: bizitza pertsonala eta lan-jarduera bateragarri egiteko laguntzak

1.- Kontzeptua: Mendetasun-egoeran dauden ahaideak zaintzeko lan-eszedentziako edo lanaldi-murrizketako egoeran dauden langileentzako laguntzak, helburu dutenak eszedentzia edo lanaldi-murrizketa horrek eragindako sarrera-murrizketa konpentsatzea, neurri batean behintzat.

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- Mendetasun-egoeran dauden ahaideak zaintzeko lan-eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu duten langileak (besteren kontura aritzen direnak nahiz sozietate kooperatibo baten lan-bazkideak edo bazkide-langileak), eta egoera horrek benetako soldata-murrizketa eragin dienak.
- Lan-eszedentziako edo lanaldi-murrizketako egoeran egotea, 59 egun naturaleko epe jarraituan gutxienez (epe hori ez-jarraitua izan daiteke langileak aldizkako kontratu finkoa badu edota EEE¹ baten eraginpean badago soilik), eta horrek benetako soldata-murrizketa eragitea langileari.
- EAEn² erroldatuta egotea eta benetan autonomia-erkidego horretan bizitzea, prestazioa eskatzean eta diruz lagun daitekeen jarduerak iraun bitartean, eta eskabidea egin aurretik urtebetez jarraian (edota, hala ez bada, eskabidea egin aurreko 10 urteetan 5 urtez jarraian).
- Lan-eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatu izanaren arrazoia izatea mendetasun-maila aitortuta duen pertsona bat zaintzea, eta laguntzaren onuradunaren eta mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren artean ahaidetasun-harremana izatea: ezkontidea izatea, izatezko bikotea izatea, odolkitasunezko ahaidea (bigarren mailara artekoa), edota kidetasunezkoa (lehen mailakoa).
- Mendetasun-egoeran dagoen pertsona ez egotea egoitzazentro batean artatuta, modu iraunkorren. Gainera, eszedentziagatiko laguntzen kasuan, mendetasun-egoeran dagoen senitartekoa ez izatea gizarte-zerbitzuetako eguneko zentron erabiltzailea.

1 EEE: enplegu-erregulazioko espedientea

2 EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

Mendetasun-egoeran dagoen pertsona bat zaintzeagatik laguntza jasotzeko baldintzak zenbait pertsonak betetzen dituztenean, bakar bati emango zaio laguntza.

3.- Jaso daitekeen zenbatekoa: Zenbatekoak gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailak zehaztuko ditu. Jasotako zenbatekoak ezin izango du gainditu langileak lan-eszedentziaren edo lanaldi-murrizketaren ondorioz izandako soldata-murrizketaren zenbatekoa. Lan-eszedentziagatik laguntzaren gehieneko epea 365 egun naturalekoa izango da.

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Eskabidea Eusko Jaurlaritzaren Herritarren Arretarako Zerbitzuko bulegoetan egin behar da, eredu ofizialarekin bat, eta dokumentazio espezifiko hau aurkeztu behar da:

- Onuradunaren NANA eta errolda-ziurtagiria (igorritako ziurtagiriak eskabidearen data baino hilabete bat lehenagoko data izan dezake gehienez, ez da onartuko lehenagoko data bat duen ziurtagiririk).
- Ahaidearen mendetasun-mailaren aitortpenaren ebazpena, eta langilearen eta mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren arteko ahaidetasunaren egiaztagiria (familia-liburua, jaiotza-ziurtagiriak edota antzeko agiriak).
- Langilea enplegatzen duen enpresa publikoaren edo pribatuaren ziurtagiria, alderdi hauei buruzkoa: langilea lan-eszedentziako edo lanaldi-murrizketako egoeran egon den aldia; lan-kontratuan adostutako lanaldia; lanaldi-murrizketaren kasuan, lan-kontratuan adostutako lanaldiaren zer ehuneko dagokion lanaldi-murrizketari; eta zer soldata-murrizketa duen benetan langileak lan-eszedentziagatik edo lanaldi-murrizketagatik.
- Gizarte Segurantzaren bajaren egiaztagiria (lan-eszedentziaren kasuan) edo datu-aldaketen ziurtagiria (lanaldi-murrizketaren kasuan).
- Banku-kontuaren identifikazio-fitxa (eskatzailleak nahitaez izan behar du kontuaren titularra).
- Eskatzaillearen zinpeko aitortpena, adierazten duena ez duela hasita Eusko Jaurlaritzaren ordainketaren bat itzultzeko prozedurarik edo zigor-prozedurarik emandako laguntzengatik edo diru-laguntzengatik, ez eta zigor-arloko edo administrazio-arloko prozedurarik ere, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko eskubideaz gabetzea dakarrenik, eta ez egotea diru-laguntzak lortzeko desgaitzen duen lege-debeku baten pean ere.

Eskabideak lan-eszedentziako edo lanaldi-murrizketako egoeran 59 eguneko gutxieneko aldia bete ondoren aurkeztu behar dira,

betiere eszedentziaren edo lanaldi-murrizketaren lehen egunetik urtebete igaro baino lehen.

5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak:

a) Bateriaezina da mendetasun-egoeran dagoen pertsona egoitza-zentro batean artatuta modu iraunkorrean egotearekin. Eszedentziagatiko laguntzen kasuan, bateraezina da mendetasun-egoeran dagoen senitartekoa gizarte-zerbitzuetako eguneko zentroen erabiltzaile izatearekin.

b) Ezin izango da prestazioa jaso, baldin eta eskatzailea aldi berean oso egoera larrian dagoen ahaide bat zaintzeko lan-eszedentziagatiko edo lanaldi-murrizketagatiko diru-laguntza jasotzen ari bada (diru-laguntza hori ere Eusko Jaurlaritzak ematen du, eta araudi berean arautzen da), baina bata bestearen jarraian jaso ahal izango dira.

c) BATERAGARRIA DA beste administrazio publiko batzuek helburu bererako emandako laguntzekin, baina laguntzen zenbatekoak guztira ezin izango du gainditu lanaldi-murrizketagatik edo lan-eszedentziagatik izandako soldata-murrizketaren zenbatekoa (muga hori gainditzen badu, Eusko Jaurlaritzak ematen duen laguntza murriztuko da, muga horretaraino).

6.- Familiei laguntzeko 13/2008 Legetik eratorritako beste laguntza batzuk: Lege horrekin bat, Eusko Jaurlaritzak beste diru-laguntza batzuk ere ematen ditu, seme-alabak ardurapean dituzten familientzat, haien mantenu-gastuak ordaintzen laguntzeko. Semeak edo alabak desgaitasunen bat badu edo mendetasun-egoeran badago, laguntzaren zenbatekoa handiagoa da, eta laguntza hori bateragarria da beste administrazio publiko batzuek helburu bererako ematen dituzten beste laguntza batzuekin.

Osasun Sistema Publikoaren prestazio ortoprosesikoa

1.- Kontzeptua: Osasun Sistema Publikoaren prestazio ekonomiko bat da, helburu duena Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako Material Ortoprosesikoen Katalogo Orokorrean jasotako kanpo-protesiak, gurpildun aulkiak, ortesiak eta protesi bereziak erosteko finantzaketa ematea erabiltzaileari.

(Autonomia-erkidegoko araudiak ezartzen badu ere produktu horietako batzuk Osasun Sistema Publikoak osoki finantzatu behar dituela, Material Ortoprosesikoen Katalogo Orokorrean adierazitako gehieneko preziora bitartean, araudi hori Estatuak defizit publikoa kontrolatzeko hartutako neurrien eraginpean dago, eta neurri horiek prestazio ortoprosesikoen ordainketa partekatua ezartzen dutenez, erabiltzaileek ehuneko bat ordaindu behar dute, prestazio farmazeutikoetarako ezarritako ehuneko bera, hain zuzen. Dena den, aurreikusitako prestazio ortoprosesikoaren ordainketa partekatua ehuneko aldizka berraztertu egingo duela Osasun Ministerioak. Ordainketa partekatutik salbuetsita daude Desgaitasuna duten Pertsonen

Eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginean jasotako prestazio sozial eta ekonomikoen sistema bereziaren onuradun diren pertsona desgai-tuak, integrazio sozialeko errentak jasotzen dituzten pertsonak, eta ordain-dutakoaren arabera ez diren prestazioak jasotzen dituzten pertsonak, besteak beste).

2.- Onuradunak eta betebeharrak:

- Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuak ematen duen osasun-arretarako eskubidea izatea.

(Barnean hartuta Gizarte Segurantzaren Sistemak babesten ez dituen pertsonak, baina Euskadiko Osasun Sistema Publikoan osasun-prestazioak jasotzeko eskubidea izateko autonomia-erkidegoko baldintzak betetzen dituztenak. Gizarte Segurantzaren Sistemari sartzen ez diren pertsona desgaituei kasu guztietan berrmatuko zaie osasun-arreta eta arreta farmazeutikoa, bai eta medikuntza-errehabilitazioa eta errehabilitazio funtzionala ere, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginean araututako moduan).

- Kanpo-protesiak, gurgildun aulkiak, ortesiak eta protesi bereziak Material Ortoprotesikoen Katalogo Orokorrean jasota egotea, eta haien erabilera Osakidetzako mediku batek agindu izana (preskripzio-dokumentuaren bidez), betiere medikua preskripzioa justifikatzen duen koadro klinikoaren arloan espezialista izanik.
- Materiala egiteaz eta banatzeaz arduratzen direnak administrazio-baimena duten osasun-zentroak, -zerbitzuak edo -establezimenduak izatea, Osasun Sailarekin lankidetzak-hitzarmen bat dutenak (Osakidetzako osasun-zentroetako bezeroaren arretarako unitatean jakinaraziko zaio gaixoari zer establezimendu diren, nahi duena aukera dezan).
- Material Ortoprotesikoen Katalogo Orokorrean "KB" ("Kontrol Berezia") siglarekin identifikatuta dauden produktuek (gurgildun aulkiak, esaterako), bisa bat behar dute erabiltzaileak erosi aurretik, finantzaketa publikoa izateko.
- Oro har, erabiltzaileak produktua erostean establezimendu banatzaileari ordaindu izana, jasotzeko unean (gero, Eusko Jaurlaritzak itzuliko dio dagokiona, ezarritako finantzaketa publikoaren gehieneko zenbatekora bitartean).

[Salbuespen-kasuetan soilik ordainduko dio produktuaren kostua Eusko Jaurlaritzak zuzenean establezimendu banatzaileari: erabiltzaileak osasun-arretarako prestaziorako eskubidea izanik ez duenean nahikoa baliabide (familia-unitateko kideen arabera legez ezarritako diru-sarreraren mugetatik behera), edota erabiltzailea ez dagoenean Gizarte Segurantzaren Sistemak babestuta eta ez dagokionean ordainketa partekatua].

3.- Prestazioaren zenbatekoa: Zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da, batetik, produktu bakoitzeko finantza daitekeen gehieneko zenbatekoa (Material Ortoprotesikoen Katalogo Orokorrean ageri da), eta bestetik, produktuaren kostuan erabiltzaileak bere gain hartu behar duen ordainketa partekatua ere.

(Lan-jarduerarik ez egiteagatik Gizarte Segurantzaren Sisteman sartuta ez dauden pertsona desgaituei doako osasun-arreta eta arreta farmazeutikoa bermatuko zaie, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bateginean eta hura garatzen duen araudian ezartzen den moduan, eta ordainketa partekatutik salbuetsita egongo dira. Halaber, ordainketa partekatutik salbuetsita daude integrazio sozialeko errentak jasotzen dituzten pertsonak eta ordaindutakoaren arabera ez diren prezazioak jasotzen dituzten pertsonak, besteak beste).

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Eskabidea Osakidetzako osasun-zentroetako bezeroaren arretarako unitatean egin behar da, medikuak egindako preskripzio-dokumentuan berariaz adierazitako atalean, eta dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Osasun-txartel indibiduala, Osakidetzako medikuak egindako preskripzio-dokumentua eta erabiltzaileak produktua beharrezko duela egiaztatzen duten osasun-txostenak.
- Produktua erosi aurretik administrazioak eman beharreko bisa, hala dagokionean (Material Ortoprotesikoen Katalogo Orokorrean "KB" –"Kontrol Berezia"– siglarekin identifikatutako produktuak, hala nola gurpildun aulkiak).
- Jatorrizko faktura, zigilatuta eta sinatuta, eta baimendutako establezimenduaren IFZ adierazita, eta produktuaren kodea, osaera eta osagaiak, bai eta bermearen epea ere, zehaztuta. (Eusko Jaurlaritzak zuzenean ordaintzen duen kasuetan, proformako faktura edo aurrekontua, eta EAEn erroldatuta egotearen eta baliabide ekonomikorik ez izatearen ziurtagiriak).

Produktua erosi aurretik beharrezkoa denean bisa lortzea, erabiltzaileak aukeratutako establezimendu banatzailera joan behar du, preskripzio-dokumentuarekin eta produktua beharrezko duela justifikatzen duen osasun-txostenarekin. Establezimenduak medikuek agindutako produktuaren aurrekontu bat edo proformako faktura bat egingo du, eta erabiltzaileak Osakidetzako osasun-zentroko bezeroaren arretarako unitatean aurkeztuko ditu preskripzio-dokumentua eta osasun-txostena. Horren ostean, administrazioak jakinaraziko dio ea lortu duen edo ez bisa, eta aurkeztutako dokumentazio guztia itzuliko dio. Bisa lortu ondoren, produktua erosi eta ordain dezake erabiltzaileak.

5.- Oharrak: Gurpildun aulkietarako finantzaketa emango da oinez ibiltzeko gaitasuna erabat edo neurri batean galdu bada eta ezintasun hori iraunkorra bada soilik.

Berrerabil daitezkeen produktuak Osakidetzari itzuli beharko zaizkio, jada erabiltzen ez direnean.

Erabiltzaileak erabakitzen badu preskribatutako produktuaren modelo jakin bat erostea, Material Ortoprotesikoen Katalogo Orokorrean adierazitako prezioa baino altuagoa duena, erositako produktuaren eta Katalogoan jasotakoaren prezioen arteko aldea ez du Eusko Jaurlaritzak finantzatuko ezein kasutan.

Mendetasun-egoera aitortuta duten pertsonen- tzako banakako laguntzak

1.- Kontzeptua: Helburu jakin baterako ematen diren banakako laguntzak dira, mendetasun-egoeran dagoen pertsonari behar dituen tresnak edo elementuak aldi batez erabiltzeko lagatzeko, edota lagapena ezinezkoa bada, aldizkakoa ez den prestazio ekonomiko bat (diru-laguntza) emateko, pertsonaren mendetasun-mailaren arabera, ekintzaren bat egiteko, laguntza-produktu bat (laguntza teknikoak) eskuratzeko edota behar duen zerbitzu bat jasotzeko egin behar dituen gastuak erabat edo neurri batean konpentsatzeko. Laguntza horien deialdiak urtero egingo dira Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO).

2.- Onuradunak eta betebeharrak: Urteko deialdi bakoitzean, ezarritako epean erositako produktuak/zerbitzuak edo egindako ekintzak soilik finantzatuko dira. Deialdi bakoitzean zehaztuko da zer ekintza, produktu eta zerbitzuek jaso dezaketen diru-laguntza; esaterako: etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko lanak; laguntza-produktuak erosteko eta konpontzeko laguntzak –norberaren zaintzarako eta babeserako produktuak, etxeko zereginek egitekoak, norbera mugitzeko edo batetik bestera joan ahal izateko produktuak, hala nola gurpildun aukiak, scooterrak, ibilgailuen egokitzapena eta abar–; etxerako altzariak eta etxebizitzaren egokitzapena; eta abar. Osasun-arloko profesionalak erabiltzeko soilik den material ortoprotesikoa ez da hartzen diruz lagun daitekeen produktutzat. Halaber, deialdi bakoitzean zehaztuko da urte bakoitzean zer baldintza espezifiko bete behar diren laguntzak eskuratzeko eta nola egiaztatu behar diren. Baldintza orokorrak, berriz, hauek dira:

- ALHn³ erroldatuta egotea eta benetan lurralde horretan bizitzea, eskabidea egin baino urtebete lehenagotik gutxienez; helbide fiskala ALHn izatea; zerga-betebeharrak nahiz aurreko deialdietan emandako diru-laguntzetatik eratorritako betebeharrak beteta izatea; eta familia-unitateak ez gainditzea deialdi bakoitzerako ezarritako muga ekonomikoak.
- Laguntzaren onuradunak % 33ko edo gehiagoko mendetasun-maila aitortuta izatea, laguntzaren bidez arindu nahi diren ondorioekin lotutako mendetasun-motan (eta 65 urte izanez gero, mendetasun-maila hori onartuta izatea adin horretara iritsi aurretik).
- Onuradunaren helburua zerbitzu bat jasotzea bada, ezin izan daiteke aldi berean Arabako Foru aldundiaren programetako zerbitzuen edo zerbitzu kontzertatuen nahiz diruz lagundutako onuradun, ez eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen zerbitzuen onuradun ere.
- Onuradunaren helburua laguntza-produktuak erostea bada, etxebizitzaren egokitzeko, onuradunak etxebizitzaren % 50en ja-

3 ALH: Arabako Lurralde Historikoa

betza izan behar du gutxienez (horretatik salbuetsita geratzen dira aitarekin, amarekin edo anai-arrebekin modu iraunkorrean bizi diren pertsonak, ahaide horietako bat onuradunaren legezko ordezkari dela, eta betiere etxebizitza hori bada haren ohiko bizilekua).

3.- Prestazioaren zenbatekoa: Prestazioaren zenbatekoak ezin izango du gaingitu egindako ekintzaren edo erositako produktuaren/zerbitzuaren benetako kostua, ez eta kontzeptu bakoitzari eman dakioken gehieneko zenbatekoa ere (ez kontzeptuari dagokion laguntzaren zenbatekoak, ez zenbateko horren eta aldi berean jasotzen den beste laguntza baten zenbatekoaren baturak).

(Urte bakoitzeko deialdian zehaztuko da laguntzaren zer ehuneko eman go den hasierako banakako ebazpenetan, eta gainerakoa ordaintzeko edo onartzeko geratuko da, laguntza jasotzeko eskubidea duten pertsona guztien eskabideak aztertu arte; horren helburua da prestazio horiek behar dituzten pertsona guztiei eskuratzeko aukera bermatzea).

4.- Eskabidea eta dokumentazioa: Eskabidea mendetasuna baloratzeko eta orientatzeko zerbitzuetan, GOFEn⁴ edo udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuetan⁵ egin behar da, deialdi bakoitzean zehaztutako epean, eta dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Familiako bizikidetzaren unitatearen ondasunen zinpeko aitortpena eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari emandako baimena, izaera pertsonaleko datuak erabiltzeko.
- Kontuan hartuta zer kostu duen ekintzak, produktuak edo zerbitzuak, oro har kontratazioa egin aurretik kostuaren zenbait aurrekontu edo proformako faktura (bi edo hiru, kostuaren arabera) eskatu behar dira, ekintzaren, produktuaren edo zerbitzuaren espezifikotasuna dela-eta beste hornitzaileak aukeran ez badago izan ezik. Ordainketa eskabidea egin aurretik egin bada, jatorrizko faktura aurkeztu beharko da.
- Eskatzaileak deialdiko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituela justifikatzen duten egiaztagirak (barnean hartuta laguntza eskuratzeko ezarritako muga ekonomikoei dagokiena), eta eskatzailearen ustez laguntzaren beharra arrazoitzeko garrantzitsuak izan daitezkeen txostenak (osasu-txostenak badira, osasu-sare publikoko mediku batek eginak izan behar dute).
- Laguntza itzulgarriak diren tresnak edo elementuak erosteko eskatu bada, jada behar ez direnean itzultzeko konpromisoa, aldi batez erabiltzeko lagapena egin bada eta haien kostua laguntzaren bidez ordaindu bada osoki.

4 GOFEn: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea

5 Gida honetan udaletako oinarrizko gizarte-zerbitzuez egiten diren erreferentziak Gasteizen bizi ez diren pertsonentzat dira.

5.- Bateragarritasunak eta bateraezintasunak:

a) Laguntza horiek emango dira soilik eskatutako produktua edo zerbitzua ez denean beste administrazio publiko batera bideratu beharrekoa, kontuan hartuta prestazioaren ezaugarriak edo onuradunaren bizilekua.

(2014ko deialdian, etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzeko laguntzak eskuratzeko, beharrezkoa da aurrez beste erakunde publiko edo pribatu bartzuen finantzaketa-aukerak agortu izana –ikus 5. liburukiko kapitulu hau: “Eraikinen irisgarritasuna hobetzeko laguntzak”–. Halaber, deialdi horretan, gurpildun aukiak erosteko eta konpontzeko laguntzak eskuratzeko, aurrez eskabidea Osakidetzan egin dela egiaztatu behar da –ikus 1. liburuki hone-tako kapitulu hau: “Osasun Sistema Publikoaren prestazio ortoprotesikoa”).

b) Laguntza horiek bateraezinak dira AFAko⁶ Gizarte Zerbitzue-tako Sailaren edota Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen he-lburu bererako laguntzak jasotzearekin. Salbuespen gisa, lagun-tza teknikoak eskuratzeko laguntzak bateragarriak dira Arabako Foru Aldunditik 39/2006 Legean jasotako prestazio ekonomikoak jasotzearekin.

6.- Oharrak: Aldi batez erabiltzeko lagapena egitea lehenta-sunezkoa izango da, diru-laguntzarekiko. Onuradunak uko egi-ten badio erabiltzeko laga daitekeen laguntza-produktua edo laguntza teknikoa onartzeari, baina teknikariek egokitzat jotzen badute produktu edo laguntza hori, diru-laguntza ukatuko zaio onuradunari.

Onuradunak betebeharra du egiaztatzeko laguntzaren zenbate-koa diruz lagundutako kontzeptua ordaintzeko erabili duela, eta jatorrizko faktura eta ordainketaren egiaztagiria aurkeztu behar ditu (hartze-agiria; banku-egiaztagiriaren kopia, edo enpresa hornitzaileak sinatutako eta zigilatutako faktura, datu hauek ze-haztuta: igorlea eta hartzailea, bakoitzaren IFZ, fakturaren data eta zenbakia, eta gastuari dagokion kontzeptua; eta hori guztia, atxikipenei buruzko zerga-arloko araudia betez). Ordainketaren ziurtagiria urte bakoitzeko deialdian zehaztutako epean aurkez-tu behar da (epe barruan aurkezten ez bada, ordainketa-kredi-tuak deuseztatu egingo dira). Ez dira 2.500 €ko edo gehiagoko ordainketak eskudirutan onartuko. Aurkeztutako aurrekontuen artean ez bada hautatzen alderdi ekonomikotik onuragarriena den aukera, berariaz arrazoitu beharko da hautaketa memoria batean.

(Salbuespen gisa, Arabako Foru Aldundiak konturako aurrerakin bat ematea edo enpresa hornitzaileari zuzeneko ordainketa bat egitea baimendu de-zake, urte bakoitzeko deialdian araututakoarekin bat).

Baldintza guztiak betetzeak ez dakar ezinbestean laguntza esku-ratzeko eskubidea, ukatu egin ahal izango baita, zenbait arra-zoirengatik; besteak beste, deialdiari esleitutako aurrekontua agortu izanagatik.

6 AFA: Arabako Foru Aldundia

Laguntza-eskabidea dela-eta irizten bazaio pertsona batek aitortuta duen mendetasun-maila alda daitekeela, ofiziozko aldaketa egingo da.

LOTUTAKO LEGEDIA

- Eusko Legebiltzarraren 13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei laguntzekoa, eta hura garatzen duen araudia (Eusko Jaurlaritzaren 177/2010 Dekretua, ekainaren 29koa, familiar-teko biza eta lan-jarduera bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa, eta Eusko Jaurlaritzaren 255/2006 Dekretua, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen).
- 16/2012 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta haren prestazioen kalitate eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa, eta Diputatuen Kongresuaren 2012ko maiatzaren 17ko Ebazpena, Errege Lege Dekretu horren Baliozkotze Hitzarmena argitaratzeko agintzen duena (zenbait inkonstituzionalitate-helegite daude izapidetzeko onartuta, eta aintzat hartzen badira eragina izan lezakete gida honetako prestazio ortoprotesikoari buruzko edukietan). 1506/2012 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Osasun Sistema Nazionalaren prestazio ortoprotesikoaren zorro komun osagarria arautzen duena.
- 1030/2006 Errege Dekretua, irailaren 15ekoa, Osasun Sistema Nazionalaren zerbitzu komun zorroa finkatzen duena eta eguneratzeko prozedura zehazten duena.
- Eusko Jaurlaritzaren 9/1997 Dekretua, urtarrilaren 22koa, kanpo-protesi, gurpildun aulkien, ortesi eta protesi berezien prestazio ortoprotesikoa arautzen duena (dekretu hori apirilaren 4ko 62/2000 Dekretuak aldatzen du), eta Osasun sailburuaren 2007ko martxoaren 29ko Agindua, Material Ortoprotesikoen Katalogo Orokorra eta eskatzaileari prestazio ortoprotesikoa zuzenean ordain diezaioten bete beharreko baldintza sozioekonomikoen baremoa onartzen dituen.
- Diputatuen Kontseiluaren 20/2014 Foru Dekretua, apirilaren 8koa, Gizarte Zerbitzuetako Sailak eta haren erakunde autonomoa den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak desgaitasun-egoera aitortuta duten pertsonentzako banakako laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onartzen dituen; eta desgaitasun-egoera aitortuta duten pertsonentzako banakako laguntzen deialdi publikoa (2014ko maiatzaren 7ko ALHAO).

ARGITALPEN HAU 2014KO AZAROAN EDITATU ZEN, ETA DATA HORRETAN INDARREAN ZEGOEN ARAUDIAN OINARRITZEN DA EDUKIA.